BIZITEGI ERAIKINA — HONDARRIBIA 4

D MAILA





Egilea eta data: Jose Clemente de Osinalde; 1871

Deskribapena.
Mehelin arteko eraikina, jatorriz behe oina eta hiru goi oin dituena, gehi 1927ko hiru jasodura (lehena fatxada planoan, txapitulak zituen jatorrizko teilatupearen erreforma gisa; bigarrena mantsardatua; eta hirugarrena atzeraemana). Behe oina 1911n eta 1927an aldatu zuten, marmolez estalita dago eta beirate beruneztatuak ditu. Proiektu komuna Hondarribia 6rekin (ordezkatua) eta 8rekin (obretan).

Babes erregimena.

1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.

2.- Berariazko erregimena.
A. Babesetik kanpo utzitako kanpoko elementuak edo zatiak: jasodurak (5. eta 6. goi oinak).
B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: elementu moldekatuak; beirateak; behe oineko apaindura.
C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: ez, erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari lotutakoak izan ezik, hala badagokio.